**Hasierako onespena emateko proposamena Eibarko Hirian ibilgailuen aparkamendu-denbora mugatua arautzeko Ordenantzari egindako aldaketei.**

**2021-9-27KO ERABAKIA**

**AURRENA.-** Hasierako onespena ematea Eibarko Hirian ibilgailuen aparkamendu-denbora mugatua arautzeko Ordenantzari egindako aldaketei. (2., 3. eta 4. artikuluak)

Aldaketak egin ondoren, artikuluak honela idatzita geratuko dira:

2. artikulua:

Ordenantza hau, ibilgailuen aparkalekuei dagokiena, honako kaleetan aplikatuko da:

1 Toribio Etxebarrian.

2 Isasi kaleko bi aldeetan Jose Antonio Gisasola eta Makazkua kaleekiko bidegurutzeen arteko zatian.

3 San Juan kalearen ezkerraldean –DO-BI noranzkoan-;

4 Bidebarrieta kalearen ezkerraldean –BI-DO noranzkoan-.

5 Errebal Plazia eraikinaren parking publikoan (-1 solairua).

**Propuesta de modificación inicial de la Ordenanza Reguladora del aparcamiento limitado en el tiempo de vehículos en la Ciudad de Eibar.**

**ACUERDO PLENO 27-9-2021**

**PRIMERO.-** Aprobar inicialmente la modificación de la Ordenanza Reguladora del aparcamiento limitado en el tiempo de vehículos en la Ciudad de Eibar. (artículos 2, 3 y 4)

Los artículos, tras la modificación, quedarán con la siguien redacción:

Artículo 2º:

La presente Ordenanza se aplicara al aparcamiento de vehículos en las calles:

1 Toribio Etxebarria.

2 Estacionamientos de la calle Isasi, a ambos las dos de dicha calle en el tramo comprendido entre la confluencia con Jose Antonio Gisasola y Makazkua.

3 Estacionamientos del lado izquierdo de la calle San Juan -sentido SS-BI-;

4 Estacionamientos del lado izquierdo de la calle Bidebarrieta-sentido BI-SS-.

5 Parking publico Errebal plazia (planta -1)

6 Eta Udal osoko bilkurak zehazten dituen gainerako lekuetan.

6 Y demás zonas que el Ayuntamiento en Pleno determine.

3. artikulua: Aparkaldi mugatuaren ordutegiak eta egunak.

1. Aparkaldi mugatua Toribio Etxebarria kalean:

Lanegunetan izango da aparkaldi mugatua, astelehenetik larunbatera. Ordutegia: 7:45-13:00. 13:00etik hurrengo eguneko goizeko 7:45ak arte oinezkoentzat izango da kale osoa. Beraz, ordu-tarte horretan ez da ibilgailurik egongo eta debekatuta egongo da aparkatzea (13:00-7:45).

Igandeetan eta jaiegunetan ez da aparkatzen utziko oinezkoen kale bat delako.

2. Aparkaldi mugatua Isasi kalean (bi aldeak Jose Antonio Gisasola eta Makazkua kaleekiko bidegurutzeen arteko zatian), eta San Juan eta Bidebarrieta kaleen ezkerreko aldean:

Aparkaldi mugatua lanegunetan izango da, astelehenetik ostiralera, goizeko 9:00etatik 20:00etara eta jaiegun ez diren larunbatetan 9:00etatik 13:30era.

3. Aparkaldi mugatua Errebal Plazia eraikinaren parking publikoan:

Aparkaldi mugatua lanegunetan izango da astelehenetik ostiralera 9:00etatik 20:00etara eta jaiegun ez diren larunbatetan 9:00etatik 13:30era.

4. Ordutegi hori Alkatetzaren Dekretuz aldatu edo luzatu daiteke (segurtasun arrazoiengatik, obrengatik, interes publikoak hala eskatzen duelako, kultura-ekitaldiak daudelako, kirol-ikuskizunak…).

Artículo 3º: Horarios y fechas en las que regirá la limitación de aparcamiento.

1. Limitación en la calle Toribio Etxebarria:

La limitación regirá los días laborales de lunes a sábado de 7:45-13:00 h. De 13:00 a 7:45h de la mañana siguiente se peatonalizara toda la calle, debiendo quedar toda la zona desocupada de vehículos, quedando prohibido el estacionamento en ese tramo horario (13:00h-7:45h).

Los domingos y festivos no se permitirá el estacionamiento al ser una calle peatonal.

2. Limitación calle Isasi (ambos lados entre la confluencia con Jose Antonio Gisasola y Makazkua), y lado izquierdo de las calles San Juan y Bidebarrieta:

La limitación horaria regirá los días laborales de lunes a viernes de 09:00 a 20:00 horas y los sábados no festivos de 09:00 a 13:00.

3. Limitación Parking público Errebal plazia:

La limitación horaria regirá los días laborales de lunes a viernes de 09:00 a 20:00 horas y los sábados no festivos de 09:00 a 13:00.

4. Por Decreto de Alcaldía podrá modificarse o ampliarse el citado horario por razones de seguridad, obras o interés público, actos culturales, deportivos, etc.

EIBARKO UDALA

4. artikulua: Aparkaldiaren iraupena:

1. Toribio Etxebarria kalea: Gehienez ere ordu 2ko aparkaldia. Ibilgailuek ezingo dute aparkatu 14:00etatik aurrera, ordu horretatik aurrera oinezkoen eremu baita. 13:00etatik aurrera (astelehenetik larunbatera) kalean ez da ibilgailu bat bera ere egongo eta oinezkoentzako gunetzat hartuko da.

2. Isasi kalean (bi aldeak Jose Antonio Gisasola eta Makazkua kaleekiko bidegurutzeen arteko zatian), eta San Juan eta Bidebarrieta kaleen ezkerreko aldea: Gehienez ere ordu 2ko aparkaldia izango dute.

3. Errebal Plazia eraikinaren parking publikoa: Gehienez ere ordu 2ko aparkaldia.

4. Erabilera-ordutegi ezberdinak izan arren, lau kaleak eta Errebal Plazia eraikineko parking publikoa gune bakar batean sartuta egongo dira; ondorioz, kale horietako edozeinetan aparkatzeko txartela ateraz gero, ezingo da ibilgailu berarentzako beste txartel berri bat atera kale horietako batean, aurreneko txartela eskuratu eta 4 ordu igaro arte.

Artículo 4º: Limitación de la duración de aparcamiento:

1. Calle Toribio Etxebarria: Regirá la limitación de un máximo de 2 horas junto con la imposibilidad de que los vehículos estén estacionados a partir de las 14:00h, momento en el que se peatonalizará la zona. A partir de las 13:00h (de lunes a sábado), la zona deberá estar totalmente desocupada de vehículos teniendo la consideración de zona peatonal.

2. Calle Isasi (ambos lados entre la confluencia con Jose Antonio Gisasola y Makazkua), y lado izquierdo calles San Juan y Bidebarrieta: Regirá la limitación de un máximo de 2 horas.

3. Parking público Errebal Plazia: Regirá la limitación de un máximo de 2 horas.

4. Aun teniendo horarios de uso distintos las cuatro calles y el parking público Errebal plazia estarán incluidas en una única zona, esto supondrá que una vez sacado el ticket de estacionamiento en cualquiera de ellas no se podrá volver a sacar un nuevo ticket para el mismo vehículo en cualquiera de las calles hasta que no transcurran 4 horas de impresión del primero.

**BIGARRENA.**- Erabaki hau jendaurrean jartzea 30 laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki-taulan eta Udalaren webgunean iragarkiak jarriz, interesdunek erreklamazioak egin, eragozpenak jarri edo oharrak egin ahal izan ditzaten. Erreklamaziorik egiten ez bada, eragozpenik jartzen ez bada edo

**SEGUNDO.-** Someter el presente acuerdo a información pública por plazo de 30 días hábiles, mediante anuncios en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios de este Ayuntamiento y en su sitio web para que los interesados puedan formular reclamaciones, reparos u observaciones. En caso de no presentarse

oharrik aurkezten ez bada, hasierako erabakia, automatikoki, behin betikotzat joko da.

reclamaciones, reparos, ni observaciones, el acuerdo inicial se entenderá elevado automáticamente a definitivo.

**HIRUGARRENA.-** Erabakia eta Ordenantzaren testua estatuko eta Autonomia Erkidegoko Administrazioei jakinaraz dakiela, onartu eta hurrengo sei eguneko epean, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 196.3 artikuluan xedatutakoa betez**.**

**TERCERO.-** Que el acuerdo y el texto de la Ordenanza se comuniquen a las Administraciones del Estado y de la Comunidad Autónoma dentro del plazo de los seis días siguientes a su aprobación, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 196.3 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales aprobado por Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre.